

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

204/2019 Foru Agindua, uztailaren 5ekoa, zeinaren bidez baimena ematen baita Ángeles Sopelana Garcíaren behin-behineko izendapena egiteko Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanposturako

Erriberabeitiko Udalak atal honi jakinarazi dio aldi baterako izendapen baten beharra daukala, oporretan idazkari titularra ordezkatzeko.

Hortaz, korporazio horretako funtzionario Maria Ángeles Sopelana García andrearen behin-behineko izendapena proposatzen du.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Maria Ángeles Sopelana García andrea behin-behinean izendatzea Erriberabeitiko Udaleko idazkari, eginkizun horietan jardun dezan, titularra ez dagoen bitartean, hau da 2019ko uztailaren 1etik 5era.

Bigarrena. Izendapena aurreko apartatuan aipatutako eperako bakarrik izango da.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Erriberabeitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekako zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ